

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Abstentzionista koherente baten botoaren disputan

Badut lagun bat, bihotzekoa benetan, ni bezala, politikaren *yonki* bat dena. Euskalgintza antolatua jarraitzaile porrokatua baino, euskaltzale sanoa; presoekiko solidarioa, aterpea behar izan dutenentzat beti etxea zabalik eta gogoa prest izan dituenak. Independentista totala, identitate eta esentzien purutasunagatik bainoago askatasunaren aldeko jarrera bere-berea duela. Oraindik ere, bizitzaren bideek elkarrengandik kilometro askora gauzkaten arren, gogoan sarritan biltzen naiz harekin Euskal Herriaz eta politikaz, huntaz eta hartaz, garagardoak pixepel, hitz egiteko.

Nire lagunak ez du sekula botoa eman. Atsegin dut, bat ez etorri arren, haren zintotasuna eta argitasuna abstentzioaren aldeko bere jarrera partikularra esplikatzerakoan. Motz-motz adieraziz, berarentzat, abstenitzea konpromiso eta interes faltaren erakusle bat bainoago euskal jendearen buru-argitasunaren, berezko sen eta adimen sakon baten adierazpena da. Ez du uste abstenizioa gure bizitza sozialaren anomalia denik, ez gaixotasun indibidualista baten edo gure gizartearen desintegrazioaren seinale denik. Kurioski, justu kontrakoa dela dio.

Masiboki abstenitzen direnak –bere hitzetan, langile-riaren eta populazioaren sektore ahulenak– beren interesen defentsan jarrera

osoki koherentea hartzen omen dute. Eta horrela jokatzeke pisuzko arrazoiak dituzte. Dioenez, ez da soziologoa izan behar abstenitzeko pisuzko arrazoi horietako batzuk identifikatzeko.

Eskaintza dominanteen politikek, enpirikoki frogagarritzat jotzen duenez, epe labur eta ertainean, langile interesen kontrakoak dira, eta, ondorioz, aberatsak areago aberasten eta langileak areago pobretzen dituztela egiaztatu daitekeela dio. Bete gabeko hautes-promesak, elite ekonomikoaren eta politikoen arteko gertutasuna... horiekin elikatutako mesfidantza arrunt naturala da. Hautatuen artean, parlamentuetan eta –hainbat udaletxetan ere gertatzen omen da–, homogenizazio soziala lotsagabea da, klasismo hutsa. Langileak oso gutxi dira, eta goi mailako koadroetan, sarri, populazio aktiboaren egiazko ordezkariarik ez dago. Klase herritarrenak ez bezalakoa

soldatak, ondareak eta, beraz, interesak dituzten ordezkari osatuta daude, oro har, erakundeak; alegia, goi klasekoak gainordezkaturik daude.

Hitzetan, diskurtso politikoei sarritan darien indareria; teoriarik, bidea elkarrekin egin behar duten alderdiek izaten dituzten borrokaldi fratizidak; eta haizea ezin berritu ahal duen kultura politikoa, horiek guztiak aipatzen ditu, baita beste arrazoi batzuk ere. Alabaina, izango dira ere, ziur, lagunari –eta niri, espazio (eta gaitasun) faltagatik, besteak beste– eskapatzen zaizkionak.

Bidasoaz bestaldeko hauteskunde kantonaleko abstentzio itzelaz jardun gara berriki eta botoa ematea derrigorrezkoa egitearen aldeko proposamenek hartu duten indarraz, hala nola Europako *think tank* sonatuenetako batzuek botoa ematearen «betebeharri» muzin egiteagatik 1.000 euroko isuna jartzeko eginko proposamenaz, baita ohiko politikaren sinesgarritasun

Zenbat euskaldun abstenituko diren ez dago jakiterik. Zientoka mila, ziur. Nor bere kontzientziaren eta izerdiaren jabe, gainera, «pisuzko» arrazoi oso partikular eta errespetagarriekin

sun faltari, zilegitasun urriari eman nahi dioten erantzunaz ere: zigorra eta jendearen infantilizazioa, abstentzioaren sustraian eta kausen inguruko hausnarketa kaskar baten ondorio dena, gotortutako elite politikoaren autokritikarako ezintasunaren seinale.

Zenbat euskaldun abstenituko den maiatzeko hauteskundeetan ez dago jakiterik. Zientoka mila izango direla, hori ziur. Nor bere kontzientziaren (ala kontzientzia eza) eta izerdiaren jabe, «pisuzko» arrazoi oso partikular eta errespetagarriak direla medio.

Boza emango dugunok ez ditugu «pisu» gutxiagoko arrazoiak. Eta botoak lortzeko, lana egiteko eta argudioak emateko arrazoi eta gogo faltan ez gaude, ez. Berriz gertatu gara laguna eta biok hitz egiteko. Saiatuko naiz, saiatuko naizenez, EH Bilduren alde boto berri bat gehiago lortzen. Horixe baietz. •